

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

MEZKIAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Zitazioa, jakinarazpena jasotzera agertzeko

Administrazioari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik jakinarazpena egitea ezinezkoa izan denez, otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak, Arabako zergenak, 108. artikuluan xedatutakoari jarraituz, eta gutxienez aipatutako artikulua eskatzen dituen jakinarazteko ahaleginak egin ondoren, iragarki honen bidez dei egiten zaio ondoren adierazi den zergadunari edo bere ordezkariari agertu dadin jakinarazpena jasotzera, prozedura hauen ondoriozko administrazio egintzena: uraren eta ur hartunea aldatzearen tasak kobratzea.

Interesduna: Víctor Ezpeleta García de Andoin.

Interesdunak edo bere ordezkariak gehienez 15 egun natural izango ditu, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Erdoñan, Donemiliagako udaletxean agertzeko, 11:00etatik 14:00etara, Mezkiako Kontzejuak izapidetutako prozeduretan egiteke dauden jakinarazpenak egin diezazkion.

Agertzeko epea igaro, eta interesduna edo bere ordezkaria agertu ez bada, jakinarazpena eginda dagoela ulertuko da legezko ondorio guztietarako, agertzeko emandako epea bukatu eta hurrengo egunetik aurrera.

Mezkia, 2016ko uztailaren 7a

Lehendakaria

JUAN CARLOS RUIZ DE MENDOZA